

BERRIGARA

6. zenbakia

JARDUN Elkartea, Bergara

1995, ekainak 16

*Alkate berria
aukeratuko da
zapatuan*

Zaldi gainean gozatu

Inguruko zaldizaleak bildu dira Bergaran

OPEL VECTRA BERRIA



merit

GUTXIK EMATEN DUTE
HAINBESTE HAIN GUTXIREN
TRUKE.

OPEL BANATZAILE OFICIALAK,
ESPERIENTZIAZ ONENAK.

OPEL

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Grajako animaliak). ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala). Telefono mobila. ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Grajako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97
- SUINAGA Esther (Etxeko animaliak. Etxez -etxeko zerbitzua). ☎ 76 17 84

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 06 43
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereok) - Barrenkale, 16 1 ☎ 76 18 81

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Eburne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

Z E B E R R I D A ?

AINHOA LETE

Akulu-AEK Euskaltegiko irakaslea

- Zer aldarrikatu zuen AEKk larunbateko manifestazioan?

- Eusko Jaurlaritzaren eta AEKren arteko elkarrizketak HABEK eten egin ditu eta ez da aurrerapausurik eman. Manifestazioa akordioak lortzeko egin genuen, AEK erakunde moduan onartua izan dadin. Oso positiboki baloratzen dugu larunbateko erantzuna, gizarteak dei bat luzatu baitzion Eusko Jaurlaritzari akordioa lortzeko.

- Zein da desadostasun nagusia?

- Eusko Jaurlaritzak AEKko zentru bakoitzak bere Identifikazio Fiskalerako Zenbakia izatea eskatzen du eta AEKk, erakunde moduan, bakarra izatea eskatzen du.



- Bergarako AEKk lehen urtea bete du...

- Balorazio positiboa egiten dugu. Euskaltegia 3 talde daude eta gure iharduera zentrotik kanpo ere zabaldu da. Euskaltegia finkatuz doa eta nahiz eta inolako dirulaguntzarik ez jaso material didaktikoa eta irakaslearen prestakuntza ziurtatuta daude.

"Jaurlaritzak zentru bakoitzak bere IFZ-CIFa izatea eskatzen digu"

I T U R R I O N E T I K

Kalyna dantzari ukrainiarrek uztailaren lehenengotan Bergaran

Pasa den maiatzaren 27rako iragarrita zegoen Ukrainiako Kalyna dantzaldearen emanaldia uztailaren lehen astebukaeran izango da ziurrenik. Ukrainiarrek hainbat arazo izan zituzten Euskal Herrirako bidaiari eta aktuzio guztiak bertan behera geratu ziren. Dagoeneko hemen dira eta aurreko astebukaeran Oñatin emanaldi bat eskeini zuten. Xamatzek San Martzialetakoa astebukaeran antolatu nahi du jaialdia baina orain, Frontoia itxita dagoenez, areto egoki bat topatzea da arazo nagusia. Bestalde, ukrainiarrek Xamatz eta beste hainbat talderi Ukrainiara joateko gonbidapena egin die.

E S A N D U T E

"Orain autografoak eskatzen dizkirate eta kalera irtetzeko ordua kontrolatu behar dut. Arratsaldeko 5etatik 7ak bitartean, esate baterako, haur asko dago kalean eta ezin naiteke edozein tokitatik ibili"

MIKEL LASKURAIN
Aktorea
EL CORREO

"Nürenbergen harrera bikaina izan genuen eta intelektual itxura zuten aleman mordo bat harriturik geratu ziren. Kritikak, berriz, gure lana aitortu zuten, antzeslana zatatsua iruditu zitzairen arren"

MIREN URKIJO
Taun-Tauneko kidea
EL DIARIO VASCO

"Realarekin liga bat lortzeko itxaropena daukat"

AGUSTIN ARANZABAL
Realeko jokalaria
DON BALON

RROTALDE JAUREGIA
0570 Bergara
Inoa eta Faxa: 76 03 97

rgitaratzailea:

ARDUN Elkartea.
asterreka, 13 Bergara.
Inoa eta Faxa: 76 08 19

uzendaria:

neko Azkarate
redakzioa:

uardo Mendibil
ikel Elkorobereziabar
ne Larrañaga

aketazioa:

neko Azkarate
uardo Mendibil
ublizitatea:

ex Azkarate

arpidetzak:

orka Elorza
estuen zuzenketak:

tepan Plazaola

ripi Laskurain

ex Labaien

redakzio kontseilua:

orka Elorza
iguel Angel Elkorobereziabar
ex Labaien

omikiak:

itor Rodriguez
orka Ortega & Jon Alvarez
ex Ugalde

ortadako argazkia:

u argazki dendak Alex Barrusori
osun ateratako argazkia

anaketa:

antxangorri taldea

rada:

500 ale.
primategia:

artu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

opyright:

BERRIGARA

ge gordailua:

50/91

SN:

30-6599

BERRIGARAK ez du bere gain

artzen aldizkarian adierazitako

enen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura sailaren
laguntza jaso du

**NELL**

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**STREET FIGHTER**

Ostirala: 22.30.
Larunbata: 17.00, 19.30,
22.30.

**FARINELLI**

Osteguna, zine-kluba: 20.00.

Zinea

▼▼ **Jodie Foster** (*El silencio de los corderos*) eta **Liam Neeson** (*La lista de Schindler*) aktoreek protagonizatutako filmea. **Michael Aptedek** zuzenduta, mendian aparte bizi eta lenguaia propio bat landu izan duen *Nell* (**Foster**) gaztearen istorioa kontatzen zaigu. *Lovell* (**Neeson**) eta *Olson* (**Natasha Richardson**) doktoreek *Nell* gizarteratzen ahaleginduko dira...

▼▼ Shadalo hirian aliatutako 12 naziotako tropek jipoi ederra jaso dute eta, horrez gain, *Bison* Jeneral desertoreak (**Raul Julia** aktorea) 63 langile rehentzat hartu ditu. *Bisonek* 20 biloi dolar eskatzen ditu erreskate modura. *William F. Guile* Koronelak (**Jean-Claude Van Damme**) langileak askatzeko operazioak zuzendu beharko ditu.

▼▼ Atzerritar filme onenaren saria eskuratzeko izendatua izan zen filmea. Bertan *Farinelli* (**Stefano Dionisi**) XVIII. mendeko musikako izarretako baten istorioa kontatzen zaigu. Filmean "castratti"en mundu misterioitsua, Broschi anaien erlazioak edota Haendel konpositorearekiko (**Jeroen Krabbe**) zuten lehia jasotzen da.

Deiak

▼ **San Antonioko jaiak.** Gaur 11etan dantzaldia *Haitzama* Orkestarekin. Bihar 4retan Mus Txapelketa, 10etan tanborrada eta 11etan *Orquesta Passarella* eta *Paco Formoso y su Mariachirekin* dantzaldia. Igandean, 10.30etan meza, ordu berean plater tiraketa 3retan herri bazkaria eta 7etan haurren tanborrada.

▼ **San Martzialeko** tabernaren esplotaziorako eskaerak ekainaren 24ko 13.00ak baino lehen entregatu behar dira Udaletxean.

▼ **Mendi irteera.** 14 urtetik gorakoentzat Anboto eta Atxarteren mendi irteera ekainaren 25ean. Izen ematea Pol-Poleko bulegoan.


▼ **Araba Euskaraz** igandean Armentian.

Ogia

▼ **Igandea 18:** Konde.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 16:** Camacho/Amezua.
- ▼ **Larunbata 17:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Igandea 18:** Puy/Morales.
- ▼ **Astelehena 19:** Guallar/Azkoa.
- ▼ **Asteartea 20:** Estella/Español.
- ▼ **Asteazkena 21:** Mozos/Corcua.
- ▼ **Osteguna 22:** Camacho/Irizar.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

Dantzako jantziak

Kultur Etxean ikusgai Xamatx dantza taldearen eskutik

Xamatzek bere hamargarren urteurrenaren inguruan antolatutako ekitaldier barne, ekainaren 25era arte jantzien erakusketa zabalik izango da Kultur Etxeko erakusaretoan. Alaitz Arana eta Kristina Atxa Xamatzeko partaideek azaldu digutenez, "jantziak eta erabiltzen dugun materiala erakutsi nahi izan dugu erakusketa honegan. Horrela, jantziez gain, dantza ezberdinekin erabiltzen dugun bainbat material (ezpata, arkuak eta horrelakoak) edota musika instrumentuak (xistua, dambolina, txirula, bonboa, soinua, klarineta) ikusi ahal izango ditu jendeak. Bestalde, musikaz lagundutako dantzei buruzko bideo bat ere jarriko da erakusketan".

Jantzien artean, besteak beste, Luzaidekoak, "La Jota y el árbol" dantzakoak, sardinerena, Bizkaia, Gipuzkoa eta Errioxakoak, amonaxoarenak edota "Berriotxoa dantza" egiteko Xamatzek erabiltzen dituenak ezagutzeko aukera izango dute ikusleek. Guztira, 18 bat jantzi jarriko dira



Besteak beste, 18 bat jantzi eta traje bakoitzaren historia ikus daitezke.

ikusgai eta, horrekin batera, traje bakoitzaren historia eta dantza ezberdinen inguruko informazioa azaltzeko panelak ipiniko dira. Material hori biltzeko Xamatzek Euskal Dantzarien Biltzarraren laguntza izan du. "Hainbat dantza ezagutzeko

ikastaroak antolatzeaz arduratzen da eta, horrez gain, lortzeko zaila izaten den materiala eskuratzeko laguntza eskaini digu. Liburu eta musikari dagokionez material mordo bat daukate" argitu digute Kristinak eta Alaitzek.

"Jantziak eta erabiltzen dugun materiala erakutsi nahi izan dugu"

Beren hitzetan, "traje berriak egin ditugunez jendeari erakustea pentsatu genuen. Normalean jendeak jantzienganako interesa azaltzen du baina ez daki ez jantzien ezta dantzen jatorria. Kuriosidade bezala, zerbaitetan Luzaideko jantziak eramateagatik napparrak ginela uste izan du jendeak. Erakusketan bitxikeriak ere izango dira. Berriotxoa dantzako jantziak, esate baterako, urte askotan gordeta egon dira eta berreskuratzea lortu genuen. Simon Arrietak margotutakoak dira eta hori dela eta balore haundikoak izan daitezke".

Frontoiko obrak amaitu bezain laister Xamatzek jaialdi bat antolatuko du eta bertan 10 urte hauetan taldetik pasatako dantzari guztiak biltzea da beren asmoa. Aipatutako jaialdia azaro aldera egingo litzateke eta bien bitartean, irailean, dantza ikastaro bat antolatzeko asmoa dute.

Xamatzeko ordezkariak pozik agertzen dira beren 10. urteurrenean orain arte jasotako erantzunarekin.

IKUSI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irizar, 2 ☎ 76 53 09

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Eskerrik asko txosnei

Ondo dago herriko zenbait jendek txosnetan beren ambientea izatea, beren gustuko musikarekin eta kalearen erdian. Ez diot inori jaietan ondo pasatzeko eskubidea ukatu nahi, baina pertsona hauek ulertu behar dute jaietako ekintzek ere beren mugak behar dituztela.

Denok dakigu jaietan lo egiteko eragozpen batzuk izango ditugula. Hori onartu beharra dago. Baina era berean, ulertu behar da musikaren bolumenari dagokionez eta ordutegiari dagokionez muga batzuk behar direla. Konponbidea ez da hain zaila: aski da bolumena jaitsi eta ordu jakin batetik aurrera kaleko musika kentzea. Batzuen dibertsioak ez du horregatik asko galduko eta, aldiz, pertsona askok izango luke atseden txiki bat hartzeko aukera. Esan beharrik ba ote dago ba pertsona batzuek lan egin behar dutela biharamunean, etxe askotan haur txikiak daudela edo gaixorik dauden pertsonak?

Arazoa konpontzea Udaletxeari dagokio eta ezin du "ez entzunarena" egin. Baina Udalarri baino lehenago txosnei berrei dagokie. Beraiek izan behar lukete interesik handiena zentzuzko neurri batzuk jartzeko. Egunean 24 ordu musika topera edukitzea ez da inorentzako mesede eta bai inguruko jendeari kalte egin eta herriarrak higuintzeko bide segurua. Horrela-

ko problemak sortzen dituen ekintza batek bere jarduera hobeto kontrolatu behar luke, iraupena segurtatzeko besterik ez bada ere.

Aurtengoak ez du jadanik konponbiderik: zenbait jendek jasan behar izan du berriro ere gehiegikeria hori. Pertsona askok ia lorik egin gabe joan behar izan du lanera, batzuek arriskuzko lanetara. Beste batzuek etxeko problemez gain etengabeko zarata aguantatu behar izan dute. Ez dut uste pertsona horiei txosnen jokabideaz kexatzeko arrazoirik falta zaienik.

Hurrengorako konponduko duzuela koan, alde zurretik eskerrak!

**HERRITAR BAT
NAN: 15.926.170**

Irurtzun-Andoain autobian protesta ekintza

Irurtzun-Andoain autobian protesta ekintza burutu zuen Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Aurkako Asanbladak maiatzak 15eko Garraio Azpiegitura Handien Aurkako Egunarekin bat eginik, Aduna parean Autobia N-1arekin lotzen duen biadukto nagusitik behera pankarta handi bat jarritz ondoko lemarekin: "Orain: Autobia. Gero: Superportua, Maltzaga-Urbina, Donostialdeko bigarren


zinturoia, intzinadora... eta gainera abiadura handiko tren. Desarrollismo txikitzailea pikutara!"

Protesta ekintza honen bidez, Irurtzun-Andoain Autobiaren eraikuntza eta trafikoaren zabalketak afektaturiko lurraldearen izaerari zor dizkiogun arrazoizko kontsiderazio guztien kaltetan gauzatu dela, kapitalismoaren neurrigabekeriak garraio nahiz ingurugiro arloan bultzaturiko politika desarrollistari obedituz inposatu egin dela, eta are gehiago, datozen urteetarako Euskal Herrian proiektaturik dauden egitasmoen ondorioz jadanik gure ingurunean nabarmenak diren eraso ekolojikoak eta sozialak aurrikusterik ez dagoen moduan larriagotzeko bidean jarri gaituela salatzen du AHTaren Aurkako Asanbladak.

Bestalde, begibistan dago klase politiko eta teknokratikoaren manipulazioa, autobian, autopistak, abiadura handiko trenak, e.a. bere patrika eta interes elektoralaren alde baliatzen dituelarik, besteak beste. Haatik, garraiobide azkarrak eta azpiegitura handiak nolnahi ere berez "gauza onak" eta mugarik gabe emendatzea egoki litzazkigukeen "ondasunak" diren uste horri, noiz arte eutsiko diogu? Azken finean, gizartearen jarrera aldaketarako premia dagoela aldarrikatzen du AHTaren Aurkako Asanbladak.

AHTAREN AURKAKO ASANBLADA

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ

◆ Udal

Euskaltegia

Bergarako Udal Euskaltegiak uda ikastaroak antolatu ditu ekainaren 28tik uztailaren 27ra arte. Maila guztiak emango dira goizez (5 ordu) eta prezioa, materiala barne, 8.000 pta.koa da. Matrikula epea ekainaren 23ra arte izango da zabalik. Argibide gehiago Udal Euskaltegian (Zabalotegi, 13) edota 76 44 53 telefonoan.

◆ Biblioporrak liburutegian

Udal Liburutegiak, udari begira, irakurtzea bultzatzeko eskeintza berezia kaleratu du. Horri esker, adin guztietako irakurleek autore ezberdinen azken nobedadeak ezagutzeko aukera izango dute. Argibide gehiago Kultur Etxeko liburutegian jaso dezakete interesatuek.

JAIOTAKOAK

Laura Frías Gómez
Maiatzak 30

HILDAKOAK

Ines Pérez Caamiña

Ekainak 1, 71 urte

Gabriel Ortigosa Merino

Ekainak 8, 77 urte

Miguel Barberena Imaz

Ekainak 10, 71 urte

Jose Maria Dulanto Unzeta

Ekainak 10, 79 urte


Victoriano Gallastegi alkate izendatuko du Udalbatzak

EAJ, EA eta PSE-EEK bat egingo dute biharko Plenoan

Bihar larunbata,

eguerdiko 12.30etan, da-tozen lau urtetarako Udalbatza osatzeko Plenoa egingo da Udaletxean. EAJk, EAK eta PSE-EEK akordioa lortu dute eta beraz, larunbatean Victoriano Gallastegi EAJko hautagaia alkate izendatua izango da. Felipe Altunak (EAJ) eta Agurne Barrusok (HB), zinegotzi zaharrenak eta gazteenak, osatuko dute mahaia biharko Plenoan eta jarraian hautatutako 17 zinegotzietan (7 EAJkoak, 7 HBkoak, EAKo 2 eta PSE-EEko bat) kredentzialak emango zaizkie. Ondoren, alkatea aukeratzeko bozketa egingo da. Gallastegik EAJ, EA eta PSE-EEren botoak jasoko ditu eta oso positibotzat jo du hiru alderdien artean lortutako akordioa.

Bestalde, komisiok finkatzeko 15 eguneko epea baldin badago ere, seguruen EAJk Hazienda, Gobernazioa, Auzoak eta Kultura batzordeak hartuko ditu bere gain; Jose Antonio Etxeberriak (EA) Obra, Hirigintza eta Ingu-rugiro Batzordea zuzen-duko luke eta Alvaro Esparzak (PSE-EE), berriz, Osasun, Enplegu eta On-



Aurreko legealdiko azken Plenoetako bat.

gizate Batzordea. Dirudienez Gobernu Batzordean EAJko 5 zinegotzik eta EAKo Juan Mari Garitanok bakarrik izango dute boto eskubidea, nahiz eta Alvaro Esparzak bertara joateko aukera izango duen.

Juan Mari Garitanok atzo, osteguna, azaldu zigunez, "ez gaude guztiz pozik, Gobernu Batzordean HBko ordezkariaren bat ere egotea nahi genuelako". Victoriano Gallastegi eta Alvaro Esparza, berriz, ostegun arratsaldean biltzekoak ziren.

HB: "Guztiak lan egin"

Bestalde, HBk idatzi baten bitartez, zera adie-

razi nahi izan du: "Garaia da urnetan emandako iritzi horren araberrako Udal Gobernu bat osatzeko. Gure taldeak jasotako 2.861 boto beren islada eta tokia izan behar dute Udaleko aginte organuetan. Ez gaude prest 'demokraziaren' izenean borrelako erabaki anti-demokratiko bat onartzeko. Euskal Herria pake bideratzeko, elkarrekiko errespetoa eta elkarrizketaren kultura zabaldu behar ditugu eta Udaleko harremanetatik ekin behar diogu. Ondorioz, Gobernu Batzordea eratzean eta lan-sailak antolatzean portzentualki jasotako botoak erreflejtzea eskatzen dugu."

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

◆ JARDUNEN mintegia

Larunbat goizean Jardun Elkarteko mintegia izango da Kartzela Zaharrean. Programa honako hau izango da: 9.30etan Julen Arejolaleibak euskara elkarteei buruzko sarreratxo bat egingo du, 10.30etatik 11.30etara osatutako lantaldeei eztabaidarako tartea emango zaie, atsedeneren ondoren, 11.45etatik 13.00etara, lantaldeen txanda berria izango da eta 13.00etatik 14.30etara lantalde ezberdinek landutakoa aztertuko da.

◆ Zaldizale mozkorra

Ertzaintzak Elosuko zaldizaleen kontzentrazioan parte hartu izan zuen zaldizale bat atxilotu zuen igande gauean herri barruan zaldiarekin mozkor ibiltzeagatik. Komisaldegira eraman ondoren aske utzi zuten baina hemendik lasterrera epaitegiaren aurrean aurkeztu beharko da. Elosuko kontzentrazioko antolatzaileek kasu aislatu batek komunikabideetan izan duen oihartzuna salatu dute.

◆ Zortzi organo emale

Igandean AL CER elkarteak organo emaleak jasotzeko egindako kanpaina zortzi organo emale besterik ez ziren lortu. AL CERek gogoratzen duenez, herriko farmazietan jaso daitezke organo emale egiteko beharrezko inpresioak.

◆ Korrika erakusketa

Ostiralean, hilak 23, Korrikari buruzko bideo eta argazki erakusketa zabalduko da 19.30etan Pol-Pol tabernan. Erakusketa astebukaera osoan zehar izango da zabalik.



Artxiboko argazkian, Elosuko Feriako irudi bat.

Astebukaeran Elosuko Otaba jaiak ospatuko dira

Elosuarrek Joseba Lizarralde izendatu dute auzo alkate

Astebukaera honetan Otaba jaiak ospatuko dira Elosun. Bihar larunbata arratsaldeko 5etan suzko ziriak eta kanpai hotsekin jaiari hasiera emango zaie, ondoren txokolata banatuko da bildutakoen artean eta gaueko 10etan bertso saioa izango da Euzkitze, Mañukorta, Gorrotxategi eta Zeberioaren partaidezarekin. Jarraian Elorza anaiekin gaupasa iragarrita dago eta goizaldean txokolate eta berakatz zopa.

Igandean, goizeko 11etan Meza Nagusia, 11.45etan Elosuko VI. Pelota Txapelketako finalak jokatuko dira eta arratsaldean, 5etan, Goenatxo eta Korta gaztearen harrijasotze saioa. Ondoren, oilar eta ahari joko eta ardi mozteak izango dira. Egunean zehar Elorza anaia arituko dira eta arratsalde partean txar-

ranga bat izango da giroa alaitzen.

Astelehenean, 11etan hamaiketako, ordubatean auzoko hildakoen omenezko meza, 3retan auzotarren bazkaria eta arratsaldean jolasak. Egunean zehar Laja eta Landakanda trikitilariak beren pieza alaiak joko dituzte.

Bestalde, larunbatean Elurmendi elkartearen egindako bileran Elosuko Auzo Batzordeak, aho batez, Joseba Lizarralde izendatu zuen Elosuko auzo alkate berria. Lizarralde 30 urte ditu, Aritzederrega baserrikoa da eta baserriko lanetatik bizidatzen da. Victoriano Gallastegik adierazi digunez, "momentu honetan ez naiz inor gai horri buruz berba egiteko baina Udalak auzo alkaterik hautatzen ez den lekuetan izendatu izan ditu ordezkariak".

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

SIRIMIRI

jatetxea

PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

DENA
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3



Liburuan Udaletxean egindako berrikuntza lanen prozesua jasotzen da.

Udaletxearen arkitektura eta historiari buruzko liburua prest

Gaur, ostirala, aurkeztu da Udaletxeko Areto Nagusian

Gaur eguerdian aurkeztekoa zen Udaletxeko Areto Nagusian "La Casa Consistorial de Bergara" (Arki-tektura eta Historia) liburua. Aipatutako liburuan Edorta Kortadi EUTGko irakaslearen, Juan Agirre idazlearen, Antxon Agirre Sorondo antropologo eta etnografoaren, Jesus Gil Massa Donostiako Irakasle Eskolako irakaslearen, Arantzazu Oregi Udal Artxibariaren eta Iñaki Aspiazu Iza Udaletxeko berrikuntza proiektuaren arkitektu egilearen artikulua aurki daitezke.

Bertan, besteak beste, egindako berrikuntza lanak, Udaletxeak historian zehar izan dituen erabilerak eta aldaketak, Gipuzkoako hainbat udaletxetako ezaugarriak, arkitektura aldetik dituzten berezitasunak (batez ere XVII. mendeko barrokoa

aztertuz), argazkiak, planoak eta beste hainbat aspektu jasotzen dira.

Diputazioak Udaletxeak berrizteko martxan jarritako plangintza-ren barne argitaratu du liburua. Liburu bilduma honekin (azkena Oñatiko Unibertsitateari buruzkoa izan zen) Gipuzkoako Ondareari duen garrantzia eman nahi zaio, nolabait historia zehar izan duen bilakaera aztertuz.

Antxon Arbulu Hirigintza Diputatua oso pozik azaldu da liburu honen argitalpenarekin eta zera adierazi digu: *"liburua oso polita geratu da eta Bergarako herriak merezi zuen bai borrelako lan bat. Daukagun patrimonioaren historia ezagutzeko behar beharrezkoa zen"*. Guztira, 2.000 ale argitaratuko dira.

◆ Bedelkaren ikastaroa

Bedelkar elkarteak, ekainaren 19tik aurrera "Gestión comercial informatizada" (20 ordu) ikastaroa antolatu du. Izenemateak 5.000 pezeta balio du eta interesatuek 76 04 68 telefono zenbakira deitu dezakete.

◆ Igerilekuak zabalik

Beti ere eguraldiaren arabera, Kirol Zerbitzuak astelehenean bertan kanpoko igerilekuak zabalteko asmoa dauka. Igerilekuak goizeko 10etatik gaueko 9ak arte izango dira zabalik eta zabaldu bezain laister barruko pizina itxi egingo dira.

◆ San Martzialerako mahaiak

San Martzialerako erromerirako mahaiak hartu nahi dituzten koadrilek Kultur Etxean eman dezakete izena. 8 lagunentzako mahai bakoitzak (aulki eta guzti) 1.500 pezeta balio du. Mahai kopurua mugatua da.

◆ Komite Internazionalistak

"Hurbildu zaitez berrietara" kanpainaren barne, Komite Internazionalistak taldeak aurtengo brigaden aurkezpena egingo du gaur gaueko 10etan Pol-Polen. Jarraian Guatemala, El Salvador eta Kubari buruzko diapositibak emango dira eta ondoren "parranda zapatista". Asteartean, 19.30etan Kubari buruzko bideoa eta eztabaida Kultur Etxean.

◆ Kirol jaia atzeratu

III. Denentzako Kirol Jaia uztailaren 1era arte atzeratu da.

Zatoia
Boutique

Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

FERNANDEZ

**Oihal pusak
Oihalak**

San Antonio, 3 ☎ 76 22 93 Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22

MUGICA
GOXOTEGIA



- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

Artekale, 3 ☎ 76 10 34

Zaharren arazoei buruzko jardunaldiak datorren asteburuan

Euskal Herriko Gerontologia Psikosozialeko lehen ihardunaldiak izango dira datorren ostiral eta larunbatean, ekainak 23 eta 24, Bergarako UNEDen. Ihardunaldi hauek iazko urrian martxan jarritako Gerontologia Psikosozialeko Masterraren osagarri lirateke. Aipatutako Masterrean 40 bat ikasle parte hartzen ari dira aurten eta datorren ikasturtean amaituko da.

Masterraren eta datorren asteko ihardunaldien helburu nagusia zaharrek lanean aritzen diren aditu eta instituzio guztien artean ideiak eta esperientziak trukatzeko gune bat sortzea litzateke. Ihardunaldiak, funtsean, zaharren atentzio eta bizi

kalitatea hobetu nahi dituzten teknikariei zuzenduta daude eta zaharrek dituzten arazo eta eskaerak aztertuko dira.

Beste, honako ponentzia hauek iragarri dira: Ignacio Montorioren "Dementziak sortzen dituen arazoei nola erantzun" (ostirala), Angel Padiarnaren "Zaharren depresio eta antsietate arazoei nola erantzun" (ostirala), "Zaharren atentzioa Euskal Autonomi Elkartearen gaur egun eta etorkizunean" mahai-ingurua (larunbata) eta Abilio Reigen "Zaharren bizi kalitatea" (larunbata).

Antzerkia ostiralean


Bestalde, ihardunaldien barruan, Gorakada y



Masterra inauguratu zeneko argazkia.

Paparote taldearen "Buenas noches" antzeslana ikusi ahal izango da ostiralean gaueko 10.30etan Mariaren Lagundiko aretoan. Bertan gusto ezber-

dinak dituzten bi zaharren elkarbizitzaren inguruko erreflesioak planteatzen dira. Esan dezagun, antzerkiko sarrera doan izango dela.



Ibargarai aldera emerjentziazko irteera bat egingo da.

Frontoiko obrak hasi dira

Aste honetan bertan hasi dira Udal Pelotalekua berrizteko lanak. Hemendik iraila bitartean Construcciones Arregi enpresak hainbat hobekuntza lan egingo ditu, besteak beste, argazkian ikus daitekeen emerjentziazko irteera bat Ibargarai aldera, kontraktantza, sarrerako ateen aldaketa, eserleku arteko pasiloen zabaltzea edota komun berriak. Era berean markagailu elektronikoa jarriko da. Proiektua Anselmo Inurrategi bergarar arkitektoak egin du eta lanak San Martin jaietarako amaituta egotea espero da. Lanen aurrekontua 48 milioi pezetakoa da.

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
 Irizar, 3 Ibargarai, 8
 ☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

BOLINTXO
Okindegia
 San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
 Ibarrekruz, 4 EIBAR
 ☎ 76 63 42 ARRASATE


LIZAR
ALTZARIAK
 Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

Amaia Mendizabal

Haurreskolako umeeen heziketa eta euskara aztertzen

Amaia Mendizabal irakasle donostiarrak haur hezkuntza eta euskara gaiari iburuzko hitzaldisolosaldea eskainiko du datorren asteazkenean arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

Amaia Mendizabalek Pedagogia erakusten du Bergarako UNEDen. Horrez gain, Pasaia-Lezoko Lizeo Ikastolako koordinatzaile pedagogikoa da. Haur hezkuntza eta euskara gaiari buruzko tesia presentatu berri du Madrilen eta "Sobresaliente Cum laude" kalifikazioa lortu du. JARDUNek antolatuta, batez ere irakasle eta haurren gurasoei zuzendutako hitzaldia emango du. *"Ez dut hitzaldia monologo biburtu nahi. Nabiago dut bertara agertzen direnek parte har dezatela. Galderak egin eta solasalditxo bat izan. Horregatik, eskatuko nieke asteazkenean etortzen direnei, aurretik prestatu ditzatela galdera batzuk, nik erantzuteko"* esan digu irakasle donostiarrak.


Amaia Mendizabalek 1983an ekin zion tesirako datuak biltzeari eta aurtengo apirilean bukatu du lana. *"15 urte eman ditut*

lan honetan eta haur hezkuntzan metodologia asko aldatu da. Metodologia estrukturaletatik, lehenengo kognitibora eta gero komunikatibora pasatu gara. Aldaketak onerako izan dira, zeren umeez ez dituzte estruk-

ikasten ditu naturalki behar dituen aspektu linguistiko eta komunikatiboak".

Amaiak egindako ikerketen arabera, ez du merzi haurrak izaten dituzten hankasartzeak zuzentzerik *"demostratu egin*

beste konklusio bat, ume erdaldunei hasieratik dena euskaraz egin behar dietela irakasleek: *"maila afektiboan ez naiz sartzen, baina linguistikoki komenigarria da ume erdaldunak eskolara lehenaldiz doazenean, basie-*



"Azken urteetan asko hobetu da haurren heziketaren metodologia".

turak guk nahi dugun bezala ikasten. Aldiz, komunikazio-estimulazioa haundia denean, berak

baitut, zuzenketak eginenez gero, ez dutela gehiago ikasten".

Amaiak atera duen

ra-basieratik euskaraz egitea, horrela euskara lehenago ikasiko dute eta".

"Ume erdaldunei irakasleek hasieratik euskaraz egitea komeni da"

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

MUJIKA

Jantxidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

Simon
Arrieta, 3

Gorka

**OINETAKOEN
KONPONKETA**

Mota guztietako
konponketak
Bizkortasuna eta
garantia osoa

Osasuna

Diabetesa

- Zer da diabetesa?

- Pankreak insulina sortzean alterazioak izaten baditu horrek transitorio metabolikoa dakar eta zera gertatzen da: odolean dugun azukarrak gora egiten du eta poli-dipsia (egarria) eta poli-uria (txiza gehiago egitea) agertzen dira. Insulinaren zeregina azukarra zeluletan sartzea da, zelulek "erregai" bezala erabil dezaten. Insulinarik ez badago, zelulek azukarra faltan botatzen dute eta "erregai" modura grasak erabiltzen hasten dira. Hori dela eta, diabetikoek, hasieran, argaltzeko joera agertzen dute.

- Diabetes diferentek al daude?


- Bi eratako diabetesak ezagutzen dira: baitetik diabetes insulinodependientea deiturikoa. Hau gaztaroan agertzen da eta faktore heredagarriek, inmunitarioak edota zenbait birusek eragiten dute.

Bestalde, insulinodependiente ez den diabetesa ere badago: hau pertsona helduetan agertzen da eta faktore heredaga-

riek aurrekoan baino eragin haundiagoa daukate.

- Zeintzuk dira diabetesaren ondorioak?

- Hanketako arteriak, bihotzekoak edota begietako arteria txikiak (ikusmenaren alterazioa eman daiteke) kaltetu ditzake. Era berean gultzurrun edota nerbioetan ere eragina izan dezake eta, beraz, tratamenduan jartzea



BITTOR IRIGOIEN
(Medikua)

ezinbestekoa izaten da.

- Zelakoa da tratamendu hori?

- Tratamenduak hiru oinarri izango lituzke: lehenbizi, dietari dagokionez, azukarra baztertu eta proteinetan aberatsa, grasetan eskasa eta kar-

bono hidratotan moderatua den dieta bat izaten ahalegindu behar gara.

Bigarrenik, kirola egitea behar baharrezkoa da, "erregai" erre eta odoleko azukar maila gutxitzeko.

Eta, azkenik, medikazioa, insulina edota aho-ko antidiabetikoen (pastilak hain zuzen) bitartez.


- Nola kontrolatu daiteke diabetesa?

- Zoritxarrez diabetes gaur egun sendaezina da baina tratamendu egoki batekin bizitza normala eramane daiteke. Konplikazio baskularrak ebartzeko kontrol egoki baten eramatea ezinbestekoa da eta autokontrola osogomendagarria da: diabetesaren egoera ezagutzea, posibilitatzen digu, medikaziora egokitzea erretzen du eta, era berean, gaisoari askatasun eta erantzunkizun gehiago ematen dizkio. Baina gaisoak bizitza normala eramane dezake eta hori egitea behar du.

- Zein inzidentzia dauka diabetesak?

- Mundu osoko biztanlegoaren %2-3ak diabetesa dauka, 20-30 milioi diabetiko inguru izango da. Estatu espainolean berriz, kopurua miloi erdi ingurukoa da. Diagnostikatzeko odol-analisia egitea nahikoa izaten da.

"Diabetikoei autokontrola gomendatzen zaie askatasun eta erantzunkizun gehiago izateko"




Diabetiko bat insulina injekzio bat hartzen.



DEBA GARAIA
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37



ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Deco-Textil

ZANGITU

Etzerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Zaldia lagun

Gero eta gehiago, zaldi gainean kirola egiten dutenak



Egunpasa ederrean, inguruko 48 zaldi eta zaldizale elkartu ziren joan zen igandean Elosuko Bentan.

kumeak 4 dira, gainontze-koak gizonezkoak. Alex Barrusok adierazi digunez, beste lekuetan emakumezkoen eta gizakumezkoen arteko alde ez da hain handia, parez pare ibiltzen da, Bergaran, ordea, gizonezkoak dira gehienak. Aspalditik datorkie zaletasuna, ia denak duela 14 urte Elusun zegoen zalditegian probatu baitzuten zaldiz ibiltzea zer zen. *"Kirol honetan jende berri gutxi bastenda, baina basten direnek ezin izaten dute laga. Nabiz eta osasunez gaizki ibili edo zaldiak sustoak eman (erori eta besoa apurtu...) inork ez du uzten".*

Bergaran 20 bat lagun ibiltzen dira zaldiz. Noiz edo noiz mendian zeuk ere ikusiko zenuen zaldi gainean herritarren bat. Ederra bezain ezezaguna den kirol hau ezagutzeko aukera izan genuen joan zen igandean Bentan ospatutako zaldizaleen kontzentrazioan.

amorratuak

Bergaran 20 bat lagun ibiltzen dira zaldiz, ema-

Irteerak asteburuan

Zaldizaleak batez ere asteburuetan ibiltzen dira

Joan zen igandean Benta eta Gorla inguruan ibili bazinen zaldi ugari ikusiko zenituen, lanbro artean zaldidunak dotore zirela. Urretxu, Zumarraga, Oñati, Lazkao eta inguruko beste herri batzuetako 48 zaldi eta zaldidun elkartu eta egunpasa ederra egin zuten Bentan. Euren asmoa ondo pasatzeaz gain, jen-

deari kirol hau ezagutaraztea eta gerturatzea ere izan zen.

Nafarroan eta zaldizaleen topaketa ugari egiten bada ere, gure artean ez dago ohitura handirik, Bergarakoa, hain zuzen, hemen inguruko lehenengo kontzentrazioa izan da.

Zaletu gutxi baina



Arratsalde partean hainbat joku antolatuta ziren.

zaldiz, baliteke asteburu-zurian ere bueltaren bat egitea, baina oro har, astebukaeretan ateratzen dira. "Gebienetan taldean ibiltzen gara, baina bakarrik ibiltzea ere gozamena da. Normalean bemen inguruko mendietara joaten gara, Izarraitzera, Karakatera... baina Gabonetan, Aste Santuan eta udan egunetako martxak egiten ditugu. Mendiz mendi ibiltzen gara: gauetan sutondoan elkartu, kanpin dendetan lo egiten dugu... pelikuletan bezala".

Zaldiz ibiltzea kirola da

Kirol hau behar bezala ezagutzen ez dugunok, pelikuletan bezala, zaldiz azkar eta galopatzan ibiltzen direla uste arren, ez da hala, "5 orduko ibilaldiak eta egiten ditugu eta galopatzeko, astiro ibiltzen gara".

Horretaz gain, zaldiz ibiltzea kirola dela ere garbi dago: "mendian ibiltzeko beste modu bat da. Mendian beti oinez

ibili behar delako ustea dago, zergatik? Jendearentzako mendira oinez joan beharrean zaldiz joatea alizientea izan daiteke. Zaldiz ibiltzea kirola da, ez da zaldi

gainean besterik gabe eseri eta bapo joatea: nekatu egiten da, ibilbideko zenbait zatitan ezin da zaldi gainean joan eta oinez ibili behar izaten da, aldapa

gogorak igo, zaldia nekakuta dagoenean sokatik eraman...".

Eguneroko lana

Zaldia animalia da, bizirik dago. "Ez da motorrez edo kotxez ibiltzea bezalakoa, zaldia bizirik dago; Zaldiduna eta zaldiaren artean barrena dago eta nire ustez, horrek sortzen du menpekotasuna, engantxat egiten du".

Biziduna izateak, lana ere eskatzen du, zaldia gobernatu egin behar baita: "egunero birritan eman behar zaio jaten, azpiak atera, baizea hartzera atera, garbitu, zepillatu... egunero-egunero egin beharreko lanak ditu zaldiak. Lotura handia da, ezin da ukatu, baina ematen duen plazerrak dena konpetatsatzen du".

Arazoa: non eduki

Eguneroko lanak guttora egin arren, zaldidunek badute arazorik, zaldia non eduki, alegia "Bergarakook baserrietan gordetzen ditugu. Norberak ez badu, baserrietan batekin tratua egin eta zaltegi batean edukitzen du. Era guztietan tratuak daude, batzuek zaltegia bakarrik alokatzen dute eta gobernatu nagusiak egiten du, beste batzuek tratuan alokatzen dute eta gobernatzea sartzen dute... denetarik dago".

Kirol hau zaldia non edukitzerik ez izateak garestitzen du. Non edukitazanez gero, ez litzateke arazorik izango. "Hemen ez dago pikaderorik, baina izanez gero, 25.000 inguru balioko luke. Dena den, egonez gero ere

KIROL ELITISTA?

Zaldiz ibiltzea ez dago beste kirolak bezain zabalduta, gutxiengoa da kirol hau egiten duena; askok dirua aipatzen dute kirol hau elitista dela esateko. Zaldidunak honekin ez datoz bat:

■ "Ikusi besterik ez dago Bergaran zeintzuk ibiltzen garen, langile-langileak gara, eta gure diru apurrak zaletasun horretan gastatzen ditugu. Hemen ibiltzen garenok geuk gobernatzen dugu zaldia, perrak ere geuk jartzen dizkiegu... guk zaldiak ezin ditugu zalditegietan eduki. Zaldia edukitzea ez da igandeetan zaldi gainean ibiltzea bakarrik, lotura da eta lan handia ematen du; zaletasun handia behar da egunero-egunero (ez dago oporrik) animalia zaintzeko, jaten emateko... eta, jakina, eliteko jendeak ez du horrelako lanik hartzen".

■ "Eliteko jardueretan parte hartzen dutenek euren zirkulua ez dute zabaldu nahi izaten, ahalik eta zirkulurik itxienean mugitzen dira, guk, ordea, kirol hau zabaltzea nahi dugu".

■ "Hemen igerilekuak bezala, Frantzia, Ingalaterra... udal zalditegiak daude, zaldia bultzatu egiten da eta edonork egin dezake kirol hau. Hemen eskiarekin egin zen bezala, zaldia ere bultzatu egin beharko litzateke. Bultzatuz gero, edonorengana iritsiko da".



Zaldia gobernatu egin behar da eta egunero-egunero jaten emateaz gain, azpiak atera behar zaizkio, garbitu..."



Zaldizaleak bakarka ere ibiltzen diren arren, gehienetan taldean ibiltzen dira.

ahalegintzen dira.

Sekula ibili ez denari gomendioak

Zaldiz inoiz ibili ez bazara, lehenengo egunean hobe duzu ordubetean baino gehiagoan ez ibiltzea. "Lehenengo egunean biru orduko ibilaldia egitea gebitxo da, pertsona hori zaldi gainean gehiago ez baita jarriko. Hasieran denbora gutxi ibili eta gogoaz geratu behar da".

Hala ere, Alexek dioenez martxa batean parte hartzea bezalakorik ez dago. "Egunetako ibilaldira etortzen denak (Kostara, Urbasara, Bardeetara...) ez du zaldia lagatzen. Lagun giroan jan, sutondoan kantatu, izarpean lo egin... ikaragarria da, sekulako giroa eta harremana sortzen da; horri ezetz esaterik ez dago".

hemen ibiltzen garenok ezagututa, ez dut uste pikaderoan inork edukiko lukeenik".

Hilean 6.000 pezeta

Lekua izanez gero, Alexen ustez zaldia edukitzea baino kirol edo hobby garestiagoak badaude: "norberak etxean edukitzeko aukera izanez gero, hilean nabikoa da 6.000 pezeta. Zaldi

polit bat 300.000 pezetan eros daiteke (kirol bonetan 16 urtetik gorako zaldia zabartzat jotzen da); hilean ondo jaten emanda 7.000 pzta. behar dira; botak 7.000

pezetan badituzu eta jarlekua 30.000 pzta.gatik".

Zaldia perratu beharra ere egoten da, baina perratzaileari deitu beharrean (7.000), eurak egiten

"Mendian ez da bakarrik oinez ibiltzen, zaldiz ere ibil daiteke. Zaldiz ibiltzea ez da zaldi gainean jarri eta besterik gabe eserita joatea, kirola da eta nekagarria gainera"



Aranerreaka, 9 behea
☎ 76 51 20

UDAKO ESKAINTZA BEREZIA

Ekain, uztail eta abuztuan, Bolu Gimnasioan izena emateagatik MATRIKULA DOAN irtengo zaizu...



75x36x30 zentimetroko poltsa


...Eta ez hori bakarrik: KIROL POLTSA ederra OPARITUKO dizugu!!

Eguzkia hartzerakoan beharrezko prekauzioak hartzen al dituzu?



Petri Sánchez
24 urte, langilea

Bai, eguzkia hartzea asko gustatzen zait eta hartzen dudan bakoitzean krema emateko ohitura daukat.



Carlos De Marcos
27 urte, langilea

Ez daukat eguzkia hartzeko denborarik eta ez dut ezer hartzen, egun baterako hondartzara noanean ere ez. Eguzki betaurrekoak eta kitto.



Eduardo Etxabe
62 urte, jubilatua

Eguzkia gutxi hartzen dut baina ez erretzeko krema ematen dut badaezpada, bekokian batez ere.



Matilde Vara
64 urte, jubilatua

Eguzkia izugarri gustatzen zait eta kremak ematen ditut normalean, Nivea eta protekziorako kremak batez ere.



Maier Amor
20 urte, ikaslea

Krema protektorak erabiltzen ditut, bestela erretzeko arriskua dago eta. Eguzki betaurrekoak ere erabiltzen ditut zenbaitetan.




Gorka Alberdi
16 urte, ikaslea

Eguzkia plaian eta pizinetan hartzen dut batez ere eta gehienetan ez ditut beharrezko neurriak hartzen.

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29



zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA


Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75



Bidaia arriskutsuak

Herriko preso bat bisitatzetik zetozen hiru gazte bergarrek istripua izan zuten joan den astean Madrie inguruan. Atzetik zetorren beste auto batek kolpatu, autobia erdibitzen duen hesia apurtu eta kontrako norabideko errepidera bidali zituen.

Espetakularra, eta zorionez eta mirariren bat medio horretan geratu zena, autoa izorratuta baina jendea bizirik.

Ez da lehen aldia horrelakorik gertatzen dena, indarrez ehundaka kilometrora duten laguna edo senidea bisitatzera joan eta istripua izan; eta inork ez badu ezer egiten, azkena ere ez da izango.

Legeak argi dio: presoak bere bizilekutik ahalik eta gertuen egon behar du. Dispertsioak, ilegala izateaz gain, ez ditu giza eskubideak errespetatzen, ez presoek eta ezta senide edo lagunak ere.

Astero-astero milaka pertsona dira autobusa edo ko-txea hartu. Ioa galdu, kilometro piloa egin, urduritasunak jota ariskuz betetako errepidera irten, diru piloa gastatu... egin behar izaten dutenak senide edo lagun preso bisitatzearren.

Eta zer egiten dute agintariek, Udaletxetikotik hasita, horren aurka? Ezer ere ez. Nahiago dute joku politikoa jarraitu eta presoek senide eta lagunak astero-astero errepidera bidali, horrek esan nahi duen guztiarekin. Ez ditzala joku politikoa egunen batean konponketarik ez duen zoritxar baten aurrean jarri!!

Beñardo KORTABARRIA



Alo, alo??

CESIDen inguruan sortutako iskanbila honek ez nau gehiegi harritu. Guzti honek horrela funtzionatzen duela jakin ez bagenekien ere, susmoak behintzat bageneuzkan. Baina herritarren susmoek ezer gutxi balio dute. GAL, Filesa eta beste iskanbila guztietan bezala, beharrezkoa da tartean dabilen norbaitek gertatutakoa kale-raztea zerbait egiten hasteko. Saltsan dagoen norbaitek ezer esaten ez duen bitartean, denok mutis. Ez da ezer gertatzen. Pentsa, saltsa erdi erdian daudenak ere prentsaren bidez enteratzen omen dira gertatutakoaz... Eta hitzegin dutenek inoiz hitzegino ez balute?

Leherketa guzti honekin, aurretik nuen beste susmo bat ere baieztatu egin da. Larriak, oso larriak dira goi karguen inguruan egindako entzuketak. Onartezina, jaunak! Eta Erregea bera ere espiatua izan omen da! Jesus!

Baina herritarren hainbat etxe eta elkartetan entzuten diren zaratek ez dute inor eskandalizatzen. Segurutasunaren izenean, justifikatuak daude. Zenbat eta zenbatetan entzun ote dugu, ez dakit nongo eta badakit nongo telefonoak pintxatuta daudela... Baina horrelakoak zenbaitzuri egitea normalizat edo ulergarritzat jotzen da gizarte honetan. Gobernua iskanbilaz iskanbila doakigu, baina hemen badirudi ez dagoela gobernu buruari erantzunkizunik eskatzeko inolako intentziorik. Horiek dena daukate onartua. Eta bitartean, badirudi herritarrok ez garela inor kontuak eskatzeko orduan. Gure botoek izugarri balio dute, baina behin hauteskundeak pasa eta gero, agur eta hurrengora arte.

Ainhoa LETE

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta

☎ 76 11 50

**BEHEKO
TABERNA**

**Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78





Argazkian, Regino Valle Jesus Alvarez Musika Eskolako presidenteak oparitu zion koadroarekin.

Omenaldi ugari Udaberriko kontzertuan

Igandeko **Udaberriko Kontzertuan** Musika Eskolako **Regino Valle** eskolako sortzaileetarikoa bat omendu zuen. Regino Valle ikusleen txalo zaparrada luzea eta hainbat opari jaso zituen, besteak beste, Jesus Alvarez Musika Eskolako presidenteak entregatu zion eskolako harmarriaren koadro bat, Victoriano Gallastegi alkateak eman zion Hiribildu Agiriaren kopia bat eta, azkenik, Jesus Eguren Pertxa elkarteko presidenteak erloju bat oparitu zion. Era berean Udalak hainbeste urtetan Jai Batzordeko kideak izan diren **Felix Iñiguez de Heredia, Felix Beitia**

eta **Luis Gutiérrez** omendu zituen hirurei Udaleko insigniak emanez eta Pertxa eta Altxasu elkartei ere plaka bat entregatu zien azken urteetan egindako lana eskertzeko. **Alberto Gorritiberea** aurkezleak ere oroigarri bat jaso zuen. Bestalde, Musika Eskolako taldeek kontzertu bikaina eskeini zuten ikusleen gozamenerako. Ikasle finak hauek, dudarik ez...

Futbolin txapelketa

Larunbat arratsaldean **III. Open LAM futbolin txapelketa** jokatu zen Seminarioan. Bertan jarritako 12 futbolinetan guztira 120 bikote aritu ziren lehian eta irabazleak Javi Guerrero eta Iñaki Jaso bergararrak izan ziren, 100.000 pezeta irabazi zituzten. Bigarren Gasteizeko Cesar eta Juan Mari sailkatu ziren (50.000 pta.) eta hirugarren Ibon Larrañaga eta Iñaki Gabilondo bergararrak (25.000 pta.). Beraz, herritarrak nagusi "munduko futbolin txapelketan"....




Hirugarren postua eskuratu zuen Ibon Larrañaga eta Iñaki Gabilondo bergarar bikotea larunbateko partidetako batean.

Pepelu
Ilepaindegia
 Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

LXUKUN
BEREZITASUNAK
 Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

**A
R
R
A
N
O**

Taberna
 Kruz Gallastegi **BERGARA**



argazkian, ezkerretik eskumara, **Xabier Lijó, Martin De Pedro, Iñaki Larrañaga eta Xabier Larrañaga.** Hori sasoia, hori!

Hiru haundietan

Mendizale hauek **Hiru Haundiak (Gorbea, Anboto eta Aitzgorri)** egiteko astebukaeran antolatutako martxan parte hartu zuten. 520 partaide izan ziren eta 400dik gora heldu ziren antolatzaileek 91 kilometroak betetzeko agindutako 22 orduetan. Bergararrek 18-19 ordutan bete zuten ibilbidea. Ar-

Zertan dihardute ba?



Ainhoa Agirreazaldegia

bertsolari gaztea berriz ere sail honetara ekartzeko beharrean aurkitzen gara, izan ere Ainhoak Euskal Herriko Eskolarteko Bertsoiari Txapelketa irabazi baitzuen aurreko larunbatean Armentian. Gogoratuko duzue, pasa den maiatzaren 20an Gipuzkoako txapela irabazi zuen Donostian. Larunbatean, Gasteizen, Ainhoa (17 urte) 18 urte artekoen finalera iritsitako zortzi lagun artean nagusitu zen eta gaitzartzaile lanetan aritu zen Xiomara Gezuragari erantzun bikainak eman zizkion gai librean, zortziko handian eta txikian eta kartzelako gaiekin.

Txangoak

JARDUNek antolatutako **txorimalo lehiaketan** parte hartu zuten 14 urtetik beherako gazte-txoek, sari modura, irteera bat egin zuten aurreko astebukarran. 25 bat lagun larunbatean Gasteizera joan ziren izotz gainean patinatzerara (goiko argazkia); beste 46 lagunek, berriz, nahiago izan zuten igandean Realak Racingen aurka Anoetan jokaturako partidua ikustera joan (beheko argazkian). Itxura denez, hauen animoak ez ziren nahikoa izan Realak partidua irabazteko. Dena den, bi taldeek primeran pasa zuten. Hurrengo batera arte!!



ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



KONDE




Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

PANADEROKUA

Jose Mari Telleriarte

Kartzat beteriko karrotxoarekin herrian gora eta behera ikus dezakegu Jose Mari Telleriarte "Antxon" (48 urte), Banco Guipuzcoano, BBV eta Euskadiko Kutxako sobreak banatzen. Egunero herri osoan zehar 700 bat banatzen ditu, oinez 10 bat kilometro eginaz.

- Albiste onak ala txarrak banatzen dituzu?
- Gehienetan txarrak, pagatzekoak.
- Zure dirua ondo gordeta daukazu?
- Hombre, irabazten dugun gutxia...
- Ataritan sartzeko arazorik?
- Ez, abuztuan bakarrik.
- Laneko gauzarik txarreana?
- Euria denean erreta ibiltzen naiz.
- Estresatuta bizi zara?
- Lan asko daukadanean jartzen naiz nerbioso.
- Lanerako zapatilak ala oinetakoak?
- Zapatilak.
- Bizikletarik ez?
- Denbora galduko nuke. Oinez



"Gehienetan albiste txarrak, pagatzekoak banatzen ditut. Laneko gauzarik txarreana? Euria izaten denean, erreta ibiltzen naiz. 10 bat Km. egiten ditut eta lan asko daukadanean jartzen naiz nerbioso. Futbola eta mendia gustatzen zaizkit"

nahiago...

- Kartarik idazten duzu?
- Urtetan ez dut idatzi.
- Bizarra noiztik?
- 1971. urtetik.
- Zerengatik kenduko zenuke?
- Apostu bategatik. Lehen apostu bategatik laga nuen...
- Zelan?
- Lagun bati apostu nion ea nork uzten zuen gehiago. Afaria irabaz bai baina oraindik ez dut jan...
- Denbora librean, zer?
- Irakurtzea.
- Egunkaririk zer ez duzu irakurtzen?
- Iragarkiak eta zine kritikak.
- Poteatzailea zara?
- Bai, egunero dozena erdi bat lagun biltzen gara.
- Ikusi ezin duzun TB programa bat?
- "Quién sabe donde".
- Hobby bat?
- Futbola eta mendia.
- Athletica UEFAn sartuko al da?
- Baleike, baina dudak dauzkat. Ni Realzalea naiz.
- Amets bat?
- Kiniela tokatu eta hilabete bat hortik zehar joan.
- Nora?
- Pirineo aldera.
- Zer apreziatzen duzu gehien?
- Osasuna.

Deba Garairako langileak behar dira

Peoi industrialak, maisu industrialak (FP II), administrari laguntzaileak (ingeles, frantses edota alemana dakitenak), txoferrak, CAD-CAM delineanteak, pintoreak (pistola, enplastea) eta hurrengo sailetan esperientzia duten lehen eta 2. mailako ofizialak eta pioi espezializatuak:

- Prentsa, muntaia, rebaba.
- Mekanika, elektronika
- Kontrol numerikoa
- Hotzeko estanzapazioa
- Soldadura (TIG, MIG, gasgarra, aluminioa, kobrea)

Kurrikuluma eta Nortasun Agiri Nazionalaren neurriko argazkia bidali Donostiako 1.846 / 20.006 posta kutxatilara, kartazalean postuaren izena eta bizilekua adieraziz.

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Fuengirolan eta apartamentua Biarritzen. ☎ 72 36 59 (gauz).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Garajea salgai Bolun. ☎ 76 05 86.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Estudioa alokatzen da Benidormen. ☎ 76 23 43.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisua salgai Azkarruntzen (merke). ☎ 81 36 58.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Arrasaten. ☎ 77 14 24.

Etxea salgai Aranerrekan. ☎ 76 56 75.

Pisua salgai Donostian. ☎ 76 31 79.

Garajea salgai Zurradero 2an. ☎ 76 12 42.

Pisua salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

DENETARIK

Denda karroa salgai. ☎ 76 21 96.

Kawasaki ZXR 750 motor bat salgai. ☎ 76 42 47.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Suzuki 442-S motor txikia salgai. ☎ 76 25 31.

Trialeko Cota 349 motorra salgai. ☎ 76 18 96.

Karabana bat salgai. ☎ 76 46 97 (gauz).

Pertsona bat behar da pisua konpartitzeko. ☎ 76 03 48/ 76 06 87.

Haurrendako **bi bizikleta** eta **moto txiki** bat salgai. ☎ 76 15 76.

Opel Astra kotxea (BI-BP) prezio onean salgai. ☎ 70 23 84 (Fernando).

Opel Kadett kotxea salgai. ☎ 86 14 16 (Nekane).

"Benimar" karabana oso egoera onean saltzen dut. ☎ 76 17 50 (goizez, asteartetik larunbatera).

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Macintosh LC III bat ia berria eta inpresora salgai. Merke. ☎ 76 39 36.

Ekainaren 23an 20.30etan Bilbora joateko kotxea konpartituko nuke. ☎ (94) 411 16 66 (Elena).

LANA

OHO eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingeleza, euskara. ☎ 76 40 27.

Propaganda banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

Zaharrak edo **haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 18.

Matematika eta **Zientzieta** klaseak. ☎ 76 06 50.

Aseguru autonomoa duen neska batek abuztuan lan egingo luke. ☎ 76 47 71.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Etxean lan egin eta **haurrak** zaintzeko **neska** edo **andra euskalduna** behar da. ☎ 76 55 86.

Sukaldari bat behar da Valle de Aranen (Lleidan) lan egiteko. ☎ 76 43 96.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta **zientzieta** klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

23 urteko **mutil** batek astebukaeretan **lan** egingo luke. ☎ 76 64 65 (gauz).

Aleman klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

**INGELES
FRANTZESA**

UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK

• **NOIZ:** Ekainaren 26tik uztailaren 14ra

- MAILA GUZTIAK
- ADIN GUZTIAK
- Haurrak
- Gazteak
- Helduak



INFORMAZIOA:
Begarako UNED. (3. pisua)
☎ 76 06 87



"Urte hasieran ekin genion proiektu honi eta gure asmoa igandeko emanaldiaz gain, beste batzuk eskaintzea da"

"Xabier Labaienek pianoarekin joteko moldaketa egin du eta berak joko ditu sintetizadoreak"

AINHOA ARBELAITZ, ARITZETAKO PRESIDENTEA

"Igandean Amadeus Mozarten 'Misa Brevis'a emango dugu San Pedron"

Aritzeta abesbatzak Amadeus Mozarten *Misa Brevis G*, mezarako pieza eskainiko du igandean, Korpusti eguna, San Pedroko eleizan goizeko 11etako Meza nagusian. Ainhoa Arbelaitzek, Aritzetako presidentea, Misa Brevisari buruzko xehetasunak eman dizkigu.

- Zer da Misa Brevis?

Izenak esaten duen bezala, mezararako idatzitako musika obra simple bat da, konplikazio haundirik gabekoa eta igandetako Meza Nagusietan eskaintzen dena. Amadeus Mozartek 1768-an konposatu zuen.

- Eta nola bururatu zitzaizuen zuek interpretatzea?

Orain dela hilabete batzuk Fidel Izagirrek, San Pedroko parrokoak, mezetan emateko obra bat lantzeko eskatu zigun eta *Misa Brevis*ari heldu genion. Gauzak horrela, Xabier Barriola legazpiarrarekin harremanetan jarri ginen eta berak landu zizkigun partiturak. Xabier Barriola Legazpiko abesbatzaren zuzendari eta Zumarragako korua-



Aritzeta eskainiko duen *Misa Brevis*ak 20 minutuko iraupena du.

ren zuzendari izandakoa da eta gaur egun haur abesbatz bateko zuzendaria da.

- Bestelako laguntzarik izan al duzue?

Bai, Xabier Labaienek izugarritzko laguntza eman digu. Partitura, bi biolin, biola bat eta baju batentzat konposatuta dago eta Xabier Labaienek sintetizadorearekin joteko moldatu du. Bestalde, lau solista izango ditugu: bajuen solista Iñaki Olaizola Plazentziarra izango da. Orfeoi donostiarrean errefortzu lanak egiten ditu eta gaur egun Arrasateko Goiko

"Iñaki Olaizola bajuen solista izango da, Agustin Badiola tenoreena, Izaskun Labaien kontrabajoena eta Itziar Labaien sopranoena"

balun abesten du. Tenoreen solista Agustin Badiola taldekidea izango da, Kontrabajoena, Izaskun Labaien eta sopranoena Itziar Labaien. Azken bi hauek ere Aritzetakoak dira.

- Zuzendari nor ari-tuko da?

Imanol Urzelai. Normalean Izaskun Labaienek egiten ditu zuzendari lanak baina une honetan bajan dago.

- Noiztik diharduzue *Misa Brevis*arekin?

Urte hasieran ekin genion eta gure asmoa igandeko emanaldiaz gain beste batzuk eskaintzea da, lan hau hartu eta gero merezi du eta.


- Zenbat lagunek osatzen duzue Aritzeta?

Une honetan 38 lagun ari gara, 16 gizoneko (8 tenore eta 8 baju) eta 22 emakumezko (13 soprano eta 9 kontraaltu eta zuzendaria). Batzbesteko adina 29 urtekoa da.

- Etorkizunerako asmoak?

Legazpi eta Orioko abesbatzekin elkartrukea egingo dugu aurrean eta urri aldera edo atzerrira joateko asmoa ere badugu.

IPINTZAKO



futbol txapelketa

A multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. ANGIOZAR	0	0	0	0	0	0	0
2. XURRUPAK	0	0	0	0	0	0	0
3. A ZE FLAXA	0	0	0	0	0	0	0
4. NEKROFIKOS	0	0	0	0	0	0	0
5. AMILOTX	0	0	0	0	0	0	0

B multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRA	0	0	0	0	0	0	0
2. ARLOTEAK	0	0	0	0	0	0	0
3. CAMPEONES II	0	0	0	0	0	0	0
4. LA JUVE	0	0	0	0	0	0	0
5. SHAKTALE	0	0	0	0	0	0	0

C multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. BILDURBAREK	4	2	2	0	0	11	1
2. ALTOS PORNOS	2	2	1	0	1	5	5
3. PAOK	2	2	1	0	1	5	6
4. OGIZUN	0	2	0	0	2	2	11



Bildurbarek OPEL-LAM



Altos Pornos



Paok



Ogizun

▼ komentarioa

Ipintzako futbol txapelketa hasi zaigu dagoneko eta aste osoan zehar, atzo izan ezik, C multzoko partiduak jokatu dira bakarrrik. Multzo honetan lau ekipo daude, ez bi partidutara jokatuko dute. Gainontzeko bi multzoetan 5 ekipo daude bakoitzean eta hauek partidu bakar batera jokatuko dute. C multzoko emaitzak ikusi ondoren Bildurbarek taldeak hurrengo faserako sailkapena ia eskuetan du sartutako gol sorta eta joko onari esker. Bigarren postua oraindik airean dago, izan ere Altos Pornos eta Paok-ek bi puntu dituzte, eta azken tokian Ogizun taldea aurkitzen da. Baina ezin dezakegu esan kanporatuta dagoenik oraindik..., taldea badute gauza txukunagoak egiteko. Bestela jokoari dagokionez igaritzen da aurten federatuak jokatzen ari direla, izan ere eurak baitira taldeen arteko diferentziak markatzen dituztenak.

▼ emaitzak

Ogizun-Paok	2-4
Bildurbarek-Altos Pornos ...	4-1
Bildurbarek-Ogizun	7-0
Altos Pornos-Paok	4-1

▼ partiduak

ASTELEHENA 19

19:30: Shaktale-Campeones II

20:30: Mongatxurra-Arloteak

ASTEARTEA 20

19:30: Altos Pornos-Ogizun

20:30: Bildurbarek- Paok

ASTEAZKENA 21

19:30: A Ze Flaxa-Angiozar

20:30: Nekrofilikos-Amilotx

OSTEGUNA 22

19:30: Campeones II-Mongatxurra

20:30: La Juve-Shaktale

▼ golegileak

1. Josu Arana (Bildurbarek) 4 gol
2. J. L. Etxaniz (Bildurbarek) 4
3. Fernando A. (Altos Pornos.) 2

Arloteak txapeldun

Arloteak izan da Labegarietako Kopa txapelketaren irabazlea, Ufala eta Angiozarren aurka irabazi ondoren. Kopako lehen partiduan Arloteak eta Ufalak bana berdindu zuten eta penaltietan txapeldunak irabazi zuten 6 penalti jaurti ondoren. Bigarren partiduan Ufalak 1 eta 0 irabazi zion Angiozarri eta azken partiduan Arloteak 1 eta 0 Angiozarri. Txapeldunari asko kostatu zitzaion gola sartzea eta hau partidua amaitzeko bi minutu falta zirela iritsi zen. Partidu amaieran sari banaketa izan zen eta Angiozarrek ligako txapeldunarena jaso zuen bitartean Arloteak kopa txapeldunari zegokiona eskuratu zuen. Iñigo Pagaldaik lehen mailako goleatzaile onenaren saria jaso zuen eta Jabi Cambronelek 2. mailakoarena. Lehen mailako atezainik onenaren saria Jabi Romerorentzat izan zen eta 2. mailakoa Manu Gainzarentzat.



Futbito txapelketan sariak jaso zituzten guztiak agertzen dira larunbatean ateratako argazkian.

Partidu amaieran sari banaketa izan zen eta Angiozarrek ligako txapeldunarena jaso zuen bitartean Arloteak kopa txapeldunari zegokiona eskuratu zuen. Iñigo Pagaldaik lehen mailako goleatzaile onenaren saria jaso zuen eta Jabi Cambronelek 2. mailakoarena. Lehen mailako atezainik onenaren saria Jabi Romerorentzat izan zen eta 2. mailakoa Manu Gainzarentzat.



Arrantza lehiaketako irabazleak

Begarako Oilgorra elkarteak antolatuta joan zen asteburuan jokatu zen San Juanen herriko arrantza txapelketa. Senior mailan irabazlea Daniel Fernandez izan zen 6 amuarrainekin. Bigarrena Sergio Gallego eta 3. Asier Muñoz izan ziren 5na amuarrainekin. Junior kategorian 4 amuarrainekin Joab Garcia izan zen irabazle, 2. Ion Pescador 3rekin eta 3. Mikel Uribesalgo sailkatu zen. Errekako amuarrainik handienaren saria 30 zm.tako arrainarekin Ibon Garitanok eraman zuen. 62 arrantzalek hartu zuten parte.



Xakelari onenak Bergaran

Pasa den astean jokatu zen Migel Altuna institutoan XXIV. Taldekako Xake Azkarreko Bergara Hiria txapelketa. Guztira 14 taldetan banatuta 70 jokalarik hartu zuten parte eta irabazleak Santanderreko Real Club Regatasekoak izan ziren. Bigarren Bilboko Pe Rey Ardid eta 3. Madrileko New In Chess. Kl. Lagunarteko txapelketan, aldiz, C.A. Castro izan zen nagusi, 2. C.A. Solvai eta 3. Torres Blanc. Amaitzeko Taldekako Xake Azkarreko Euskal txapelketa Iruneko La Sallek irabazi zuen.

HERRIKO KOTXE GIDARIAK CALAFATEN

Bergarako kotxe gidariak primeran ari dira aurtengo denboraldian eta asteburuan Pablo Irizar, Martin Egaña eta Juan Antonio Egaña Calafaten (Tarragona) izango ditugu korritzen.

Irizarrek Supercopa ZX 16 V kategorian korritzen du eta txapelketa amaitzeko 5 proba falta direnean liderra da 73 punturekin. Bigarrenari, Eduardo Aisa bilbotarrari, 5 puntu ateratzen dizkio. Martin Egaña, berriz, Copa AX GTI txapelketan lehen postuan dago, orain arte korritutako 3 lasterketatik bi irabazi dituelarik. Martini ere 5 lasterketa geratzen zaizkio.

Juan Antonio Egañari dagokionez 5. postuan dago sailkatuta eta Calafaten lortzen duen emaitzekin aurrera egin dezake. Irizarrekin hitz egin dugu asteburuko lasterketari buruz eta zera esan digu: *"iaz 3. geratu nintzen, baina kontutan izan behar da Calafateko zirkuitoa ez dela egokia guretzat, kurba asko ditu eta oso motela baita. Halere emaitza onak lortzen saiatuko gara".*

Ea, bada, suertea duten Tarragona aldean.

Pedro Rico

Futbitoaren antolaketa

Labegaraietako futbito txapelketa amaitu da aurtengoz eta urte osoan zehar txapelketaren antolakuntza eramaten aritu den batekin, Pedro Ricorekin alegia, izan dugu elkarrizketaxo bat urteko balorazioa egiteko.

- Nola joan da aurtengo denboraldia?

- Kirol aldetik nahiko ondo joan dira gauzak. Antolaketa ere jendeak parte hartu du. Baina arazoak izan ditugu kiroldegiko ordutegiarekin. Udaletxekoek ordurik ez baldin badago ez digute uzten, gu azkenengoak gara orduak hartzerakoan. Asteko ordutegia zehazterakoan beti egon behar dugu pendiente ze ordu ditugun jakiteko, eta gure ustez 500etik gora bergarar ari gara jolasean eta errespeto gehiago izan beharko genukeela uste dut.

- Konponbiderik ikusten al diozue gaia-ri?

- Orain, datozen urte-tarako irtego den kirol zinegotziarekin hitz egingo dugu gaia konpontzeko eta BKErekin ere hitz egingo dugu. Azken hauei Udalak dirulaguntza bat ematen die Futbito txapelketa antolatzeagatik eta guk ez dugu diru hori ikusten. BKErekin oraingoz gustora gaude lokala uzten baitigu, baina dirulaguntza eskuratzeko hitz egingo dugu eta agian, BKEtik alde egingo dugu. Eurek ez dute pertsonarik jartzen

txapelketa antolatzeko eta agian gure kontura antolatuko dugu.

- Kuotek ere aurten asko igo dute...

- Ez dugu inskripzio-rik kobratu eta azkenean 10.000 pzta taldeko kobratu behar izan dugu. Superabitarekin hasi ginen eta orain defizitarekin bukatu dugu. Hurrengo urtean Udaletxetik jasoko dugun diruarekin espero dugu taldeek asko ordaindu behar ez izatea. Gainera, geu gara kiroldegia erabiltzeagatik ordaintzen dugun bakarrak

eta federatuekiko uste dut diskrimatuak gaudela.

- Arbitroak zer moduz moldatu dira?

- Asistentzia aldetik nahiko ondo egon da. Taldeek ondo erantzun dute eta alde horretatik ez da arazorik izan. Arbitraiei dagokienez nahiko gaizki egon dira. Alde batetik, gure errua izan da arautegi konplikatu egiteagatik eta bestetik taldeko delegatuek ere ez dituzte behar bezala azaldu arauak, jokalaria askok ez baitakizkite arauak.



"Bergara Kirol Elkartearekin harremanak aldatu beharko lirateke".

"Datorren urtera begira ordu kopuru fijo bat eduki nahi dugu txapelketarako"



Bergaratik...

Zubita agertzen dan erretratu hau, 1956xan Iñaki Unamuno agurtzeko aitzakixakin eindako ospakizunian etarata dago. Iñaki Unamuno La Panpan, Argentinan, bizi da eta hara joan aurretik eskolako eta San Antonioko lagunak dotore-dotore jantzi eta agur bero-bero bat eskeiñi zotsen.

Ezetz asmau zenbat urte daukan erretratuko kuadrilliak?

Ezkerretik eskumara:

Atzian zutik: Jose Mari Ambroy, Jabier Retegi, Faustino Garcia, Jose Ignacio Imaz, Iñaki Murgizu, Bienvenido Díez, Anastasio Misol, Jabier Garcia, Jose Luis Irizar, Migel Mendibil, Jose Julian Garitano, Patxi Garitano, Karmelo Gallastegi, Anjel Durana, Xabier Bilbao, Manolo Arruabarrena, Paulino Manso.

Erdi-erdixan: Luis Silva, Eugenio Larrañaga, Sabin Ezpeleta.

Aurrian makurtuta: Ramon Ambroy, Manu Muniategi, Pako Eraña, Jesus Uriarte, Iñaki Unamuno, Iñaki Gorkotxea, Bitoriano Etxaniz, Fernando Garcia.

Felipe Iñarra

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

GPC Jokabideen Psikologia Kabinetea
J.R. FERNANDEZ Kol. Zenb. E-2346

*Antsietate, obsesio, depresio eta
stresaren diagnostiko eta
tratamendua, peritaje
psikologikoa. RPS: 33-95*

Ramon Maria Lili 2, printzipala
eskuma ☎ 76 59 39 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

LASCAR

Biltegiak, S.M.

☎ 76 10 38 - 76 19 11

ADI BERGARA!!

AUTOAK GARBITZEKO ZUBIA

ireki dugu Amilaga 32an

- GARBITU ▪ ARGIZARIA EMAN ▪ SIKATU ▪
- BARRUAK GARBITU ▪ TAPIZAK GARBITU ▪

Olio aldaketak - Aire filtroak - Olio filtroak - Bujiak
Frenoentzako likidoak - Likidoen mailen azterketa (DOAN)

Hainbat markatako neumatikoak.
Neumatikoak jarri eta ekilibratzea doan.

**LARUNBATETAN
ZABALIK**

- IREKITZE-KANPAINA 1995eko UZTAILAREN 15era ARTE
- FAKTURA TOTALAREN % 20ko DESKONTUA



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK

ARROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefonia eta Faxe: 76 54 91

**ZATOK GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**



ZURE LAGUNIK ONENA

Euskara da zure lagunik onena uda honetan.
Ez alde batera utzi, berarekin goza ezazu.


95eko UDA IKASTAROAK

16 urtetik gorakoentzat.
Ekainaren 28tik uztailaren 27ra arte.
5 ordu goizez

MAILA GUZTIAK: Euskalduntze, Alfabetatze, EGA.

MATRIKULALDIA: Ekainaren 12tik 23ra arte

PREZIOA: 8.000 pezeta (materiala barne)



UDAL

EUSKALTEGIA

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA
Zabalotegi, 13 behea Bergara
Telefona eta faxa: 76 44 53